

ELGERA



“Jendearekin komunika-
tzeko jarrera aldatu dut,
munduari beste ikuspegi
batetik begiratzen diot”

**OIHANE ARRANZ
DE CASTRO**

ERASMUS ESPERIENTZIA POLONIAN



4

- 3 Euskararen Eguna
- 4 Elkarriketa
- 6 Inkesta
- 7 Proiektuak
- 8 Elkarriketa
- 10 Erreportajea
- 12 Irteera
- 13 Kultur txokoa
- 14 Lehiaketak
- 16 Denbora-pasak
- 17 Bertsolaritza
- 18 Artikulua
- 19 Tailerrak



7



10

aurkibidea

ELGERA 17. ZB abendua

- 20 Musika
- 22 Testigantzak
- 23 Bitxikeriak



20



18

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Ellacuria-Zurbaran BHI, Ing. Jose Orbegoza HLHI, Gabriel Aresti BHI, Kiriñño Ikastola IPI, Harrobia Ikastola Lanbide Heziketa, Txurdinaga LHII, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola IPI, Ibarrekolanda BHI, La Salle Bilbao HLBIP, San Inazio BHI eta B01eko eta B02ko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programak.

Inprimategia: Antza. **Ale kopurua:** 4.800. **Webgunea:** www.elgeraldizkaria.wordpress.com



La Salle



Elacuria-Zurbaran



Unamuno



Eskurtze



Orbegozo



Rekaldeberri

Euskararen Eguna 2019



Ibarrekolanda



Harrobia Ikastola



Gabriel Aresti



Deustuko Ikastola

“ Jendearekin komunikatzeko jarrrera aldatu dut, munduari beste ikuspegi batetik begiratzen diot ”



ERASMUS ESPERIENTZIA POLONIAN

Zerk bultzatu zintuen Erasmus programan parte hartzera?

Txikitatik esan diot neure buruari kanpora joateko aukera izatekotan joan egingo nintzela. Ikastetxean Erasmus programan parte hartzeko aukera zegoela entzundakoan, ez nuen ezta pentsatu ere egin.

Zein helbururekin joan zinen?

Ingelesa hobetzeko, errutina alde batera utzi eta alde egiteko. Azken finean, ona da noiz-entzanean behin zer bait ezberdina egitea.

Hara joan aurretik, Polonia ezagutzen zenuen?

Poloniara joatea tokatu zitzaidan eta ez nekien ia ezer herrialdeari buruz. Interneten informazioa bilatu nuen eta gutxi gorabehera ideia bat egin nuen, baina, jakin, ez nekien ia ezer.

Buruan beste aukera batzuk izanda, zer bilatzen zenuen eta zer aurkitu duzu Polonian?

Batez ere ingelesa praktikatu nahi nuen, baita errutinatik deskonektatu ere. Hasieran, beste herrialde batzuk aukeratu nituen ingelesa gehiago erabiltzen zelako. Poloniara joango nintzela jakin nuenean pentsatu nuen gutxi mintzatuko nintzela ingelesez, baina hori ez da egia izan: gaur egun ia edonon hitz egiten da.

Bete al dira zure itxaropenak?

Ez bakarrik bete, baita gaintu ere. Orain, nahiz eta ingelesez perfektua izan ez, lotsarik gabe egiten dut. Jendearekin komunikatzeko jarrera aldatu dut, eta munduari beste ikuspegi batetik begiratzen diot.

Lanari dagokionez, nolakoa izan da esperientzia?

Laborategi batean egin nuen lan, ur hornikuntzarako enpresa batean; hainbat analisi egiten genion urari. Oso ondo portatu ziren gurekin: lana ez zen batere errepikakorra izan eta hilabetero laborategiz aldatzen gintuzten analisi eta makina ezberdinak frogatzeko. Askok ikasi dut.

Zer itxura hartu zenion Krakoviari iritsitakoan?

Gogoratzen ditut lehenengo egunak, pixka bat arraroak izan ziren; pentsatzen nuen oso leku tristea zela jendeak ez zuelako barre egiten. Egunk aurrera joan ahala, ordea, konturatu nintzen ez zela batere erraza barre egitea hain hotz handiarekin.

Zerk eman zizun atentzioa?

Jendea oso gaztea da, 25 urteko gurasoak ikusten nituen ume askorekin. Gainera, umeak zintzo-zintzoak dira. Horretaz gain, beharrezko produktuak oso merkeak dira eta 50 euroekin baneukan nahikoa hilabeteko erosketak egiteko. Bestalde, Erasmuseko ikasleekin oso harreman onak egin ditut eta oso oroitzapen onak ekarri ditut.

Nola aldatzen da bizimodua atzerrian?

Hemen oso ordutegi txarra dugu: goiz altxatu eta berandu oheratzen gara. Polonian, aldiz, ez. Gaueko 10:00etan oheratu eta goizeko 6:00etan altxatzen nintzen. Ez naiz inoiz horren ondo sentitu. Hasieran lan giroa pixka bat arraroa izan zen, langile guztiek ez zekitelako ondo ingelez, eta ez zuten asko hitz egiten gurekin. Pixkanaka-pixkanaka, elkarri ulertzen hasi ginen eta oso giro ona sortu genuen. Orokorrean, oso langile lasaiak dira eta pazientzia handia dute.

Zer aldatu da zuregan esperientzia honen ondoren?

Askok aldatu nau, ezagutu ditudan pertsonengandik asko ikasi dut; gainera, ingelesez hitz egiteko erraztasuna hobetu dut. Orain, hemen atzeritar bat balduta ikusten badut, laguntzera joaten natzaio; izan ere, hemen ez dut jende berria ezagutzeko aukera handirik.

Zer pentsatzen duzu Erasmus programaz oro har, esperientzia profesionalaz harago?

Nire ustez, beti pertsona leku berdinean egoteak ez dizu uzten munduko gauza asko ikusten eta pertsona gisa hazten. Inoren laguntzarik gabe (gurasoena barne) bizitzeak zeure burua ezagutzen laguntzen dizu; gainera, lotsa galtzen duzu nahitaez.



Nicolas Garcia-Romo

Oso erabilgarriak dira baina gehienetan gurpilak apurtuta dituzte, bateriak ez du funtzionatzen, etab. Horrez gain, hamalau urterekin bizikletak hartzeko baimena izatea gustatuko litzaidake.



June Andoin

Nik ezin ditut erabili baina kanpotik ikusita, ideia bikaina iruditzen zait. Horrela, jendeak ez du airea kutsatu behar alde batetik bestera doanean. Gustatzen ez zaidana zera da: hamasei urtetik gorakoek bakarrik erabili ahal dituztela.



Uxue Zendagortagalartza

Beharrezkoak dira, gazteontzako Bilbotik ibiltzeko aukera erosoena baita eta kotheen erabileran murrizten laguntzen duelako. Arazoa da arriskuak izan daitezkeela jendeak modu desegokian erabiltzen baditu.




Luna Moreno

Ondo daude, baina ez zait gustatzen hamasei urtetik gorakoek bakarrik erabili ahal izatea. Bestalde, erabiltzaileek kontu handiagoa izan beharko lukete, bizikletarekin batera motor bat ere baitute.



Celia Ramos

Oso baliagarriak dira, nahiz eta oraindik erabili ezin ditudan. Asarte eta ostegunetan Indautxura joateko erabili ahal izatea gustatuko litzaidake. Beti metroz joaten naiz eta hori, azkenean, gastu handia da.



Ander Arregi

Asko erabiltzen ditut eta gogoko ditut. Hala ere, jende askok modu desegokian erabiltzen ditua, eta horregatik nahiko apurtuta daude bizikleta asko. Erabiltzaileok hobeto zaindu beharko genituzke eta mantentze zerbitzuak hobea izan beharko luke.



Mikel Bijeska

Anaiak gauza onak baino ez dituz esaten: oso azkar doazela, erraz gidatzen direla, aldapa malkartsuenak igo ditzaketela... Kriston gogoia dut nik ere erabiltzeko. Akats bakarra da bizikleta kargarik gabe badago ia ezinezkoa dela gainean ibiltzea.



Eleder Lopez

Asko gustatzen zaizkit, gauza askotarako erabiltzen ditut, gehienetan udan eta eguraldia ona dagoenean. Asko gastatu gabe urte osoan zehar bizikleta bat edukitzeko eta ia ahalegin handirik egin gabe edonora heltzeko aukera ematen dizu.



Thamara Vargas

Oraindik ezin ditut erabili, baina nebak atera zirenetik erabiltzen ditu. Bere ustez oso erabilgarriak dira eta kutsadura asko saihesten dute. Oso erosoak dira eta motor elektrikoak edozein adineko pertsonari ematen diola bizikletan ibiltzeko aukera. Gauza txar bakarra bizikleta batzuk txarto zainduta daudela da.

Lamiak irratia

Gabriel Aresti institutuak urteak daramatza irratigintzan. Lamiak irratia FMn 107,3 frekuentzian entzun daiteke inguruko auzoetan eta institutuko bozgo-railu sarearen bidez. Duela bost urte irakurketa-proiektuarekin bat egin zuen irrati tailerrak. Horren helburuak dira, alde batetik, irakurketa bultzatzea; bestetik, ahozko jardunak tartea izatea; eta azkenik, euskal kulturari tokia ematea. Horretarako, astero bi magazin egiteko aukera dute DBH3ko ikasleek.

Testua: David Mbibo eta Izaskun Ramirez
Argazkiak: Mikel Vazquez

Lanaren antolaketa

Gabriel Arestin DBH 3.mailako ikasleak estudioaren ondoko gelaxoan bilduko dira prestaketa lanari hasiera emateko. Irrati saioa hasi aurretik, irakasleak ardurak banatuko ditu, hau da, lehenengo eta behin esatari nagusia izendatuko du, irrati saioa zuzenduko duena. Gero, audio-teknikaria aukeratu du, estudioko ekipo guztiak piztuko dituena. Arduren banaketarekin amaitzeko, musika-teknikaria izendatuko du eta aukeratutako abes-
tiak Youtuben aurkitu eta prest izango ditu ordenagailuan. Irrati saio guztietan ardurak aldatuz joango dira eta magazineko atal guztietatik pasako dira ikasleak eta ez errepikatzen ahaleginduko dira amaitu arte guztiak.

Estudioan sartu baino lehen, prestaketa gelan, saioan parte hartuko dutenek zer esango duten eta zein ordenatan erabakiko da irakaslearen laguntzarekin. Magazineko gaiak anitzak izango dira; adibidez, txutxu-mutxuak, asmakizunak, elkarriketak, musika, eta jakina, berriak eta kirolak.

Ikasleek egunkarian eta aldizkarietan arakatuko dute informazioa eskuratzeko. Gaia aukeratu ostean prestatzen hasiko dira, eta gehienez 20 minutu izango dute hau guztia antolatzeko.



Irrati saioa

Behin estudioan sartuta, 40 minutu izango dute irrati saioa gauzatzeko eta tentuz ibili beharko dute tarte horretan prestatutakoa amaitzeko. Lehenengo hiru hilabete honetan A taldeko 15 ikasle egongo dira irratigintzan. Denenak inportanteak izan arren, ardura batzuk arrakastatsuagoak edo preziatuagoak dira ikasleen artean: musika-teknikaria, audio-teknikaria eta esatari nagusia.

Espazioak berezita daude, saio bakoitzean teknikariak eta magazinearen sekzioetako egileak aldatuko dira. Musika-teknikariak Youtubetik hartuko ditu abes-
tiak, gehienak euskaraz, baina noizbehinka ingelesez eta gaztelaniaz ere bai. Audio-teknikariak sintoniaren, mikrofonoen eta musika sartzearen ardura izango du.

Esatari nagusia hasiko da Lamiak irratia sintoniarekin batera eta gero seinale bat egingo dio lehen parte hartzaileari hasteko. Lehenak amaitu ostean, esatari nagusiak gaiari buruzko galderak egingo dizkio.

Bakoitzak irakurritakoa bukatzen duenean mikrofona amaituko du audio-teknikariak eta musika jarriko du musika-teknikariak. Musika irrati saioaren sekzioak banatuko ditu eta horrela esatariak errazago aldatu ahalko du gaia.

Bukatzeko, esatariak agurra irakurriko du eta musikarekin amaituko da emanaldia.

Bigarren Hezkuntzako

Lehen Hezkuntzako eskolatik Bigarren Hezkuntzako Institutura pasatzea emozio eta bizipenez betetako garaia da. Zentro aldaketa, urduritasuna, jakin-nahia, eta nola ez, ‘nagusiak’ izatearen bidean aurrerapauso ederra. Horren inguruan mintzatzeko prest daude DBHko 1. mailako Iraia, Adrian, Hanae, Jon, Jaiotze, Asier eta Olatz ikasleak. Hona hemen haien bizipenak.

Zelan sentitu zarete ikastetxe aldaketarekin?

Iraia: Ni poz-pozik sentitu naiz, harrera oso ona izan da.

Adrian: Ondo sentitu naiz, baina pixka bat arraro ere, hainbat denbora eskola berean eta orain aldatu behar.

Hanae: Hasieran pixka bat txarto pasatu nuen, nire lagunak ikasgela berean tokatu ez zaidalako; hala ere, harrera ona izan da eta orain lagun berriak ditut.

Jon eta Jaiotze: Ondo moldatu gara aldaketarekin eta gustura sentitu gara. Harrera ona izan da eta beharrezkoa den informazioa eman digute.

Asier eta Olatz: Ondo sentitu gara ikastetxe berrian, egin diguten harrera ona izan da, ondo sentiarazi digutelako.

Zein ezberdintasun ikusten duzue eskola eta institutuaren artean?

Iraia: Aldaketarik handiena irakasle asko izatea da, irakasgai bakoitzeko bat, eta horrek irakasle ezberdinen lana izatea eskatzen du.

Adrian: Institutua zorrotzagoa da.

Hanae: Eskolan ez genuen hainbeste azterketa izaten eta, gainera, eskolan ikasleok klase batetik bestera joaten ginen; institutuan, aldiz, irakasleak etortzen dira gure ikasgelara.

Jon eta Jaiotze: Institutuan irakasle bat dago gai bakoitzerako eta horrek zailago bihurtzen du ondo egokitzea. Gainera, eskola ordu gehiago dira eta asteburuak behar ditugu lanak prestatzeko.

Asier eta Olatz: Ordutegian, irakasle bat irakasgai bakoitzeko, azterketa eta kontrol zailagoak...

Orain gutxi ordezkariak aukeratu dituzue gelan. Zelan joan da?

Iraia: Gure taldean hasieran bi neska hautatu genituen ordezkari eta aldatu behar izan genuen. Neska eta mutila aukeratu behar izan genituen baina ondo deritzot, horrela berdintasuna sinbolizatzen delako.

Hanae: Ondo joan zen ordezkarien aukeraketa.

Jon eta Jaiotze: Ordezkarien aukeraketa ondo joan zen. Pertsona bat atera zen baina, gero, hobeto pentsatu zuen eta ez zuela izan nahi esan zuen. Horregatik, neu naiz orain ordezkaria. Gainera, mutil bat eta neska bat atera dira parekidetasuna bermatzeko; beraz, ondo.

Asier eta Olatz: Paritatea aplikatu eta gelako ordezkari bi aukeratu behar izan ditugula, neska eta mutila. Ez da arazorik sortu, ondo ikusi dugu horrela izatea, denok onartu

institutura ongi etorria



Hanae Azizi, Asier Izagirre (atzean), Iraia Minayo, Adrian Callejo (atzean), Jon Inunziaga (aurrean), Jaiotze Santos (Atzean) eta Olatz Minayo

dugu bion erantzukizuna izatea eta gustatzen zaigu ere gu geu ordezkariak izatea.

Zuetariko batzuk Berdintasun Aniztasun Batzordean (BAB) hartzen duzue parte. Azalduko diguzue zer den?

Iraia: Berdintasuna jende gehiagorengana zabaltzeko taldea da eta Ezkurtzen horren inguruko tailerrak antolatzeko.

Adrian: Berdintasun arloaren informazioa eta parte hartzea bultzatzeko taldea da.

Hanae: Bai, guztiok pertsonak errespetatu behar ditugula ikasten dugu, azalaren koloreaz gain, janzkeragatik... eta abar, denok berdinak izan gaitezen.

Jon eta Jaiotze: Ezkurtzeko BAB taldea Institutuan berdintasuna lortzeko egin den batzordea da eta ikasleak eta irakasleak nahastuta gaude.

Asier eta Olatz: BAB, Berdintasun eta

Aniztasun batzordea da eta bertan berdintasunari buruz hitz egiten dugu.

Beharrezkoak dira horrelako taldeak?

Iraia: Beharrezkoak dira oso gai garrantzitsuak direlako feminismoa, arrazakeria, homofobia...

Adrian: Bai, munta handikoa da berdintasuna egoteko eta gure arteko harremanetan garrantzitsua delako berdintasuna.

Hanae: Bai, jendearen artean arazo asko egon ez dadin. Ikastetxean oso inportantea da berdintasuna egotea eta gainerakoak errespetatzea.

Jon eta Jaiotze: Bai, beharrezkoak dira honelako taldeak gauzak erreklamatzeko. Niretzako inportantea da ikastetxean feminismoa eta arrazakeria lantzea.

Asier eta Olatz: Bai, noski. Beharrezkoak dira berdintasuna lantzeko eta gure institutuan berdintasun jarrerak egon daitezen.

Marketina eta publizitatea proiektu errealeen bitartez ikasi

Harrobiako Marketin eta Publizitateko ikasleok balioetan oinarritutako mahai-jokoak ekoizten dituen enpresa bat sortu dugu, Baloreka izena duena. Harrobian erronken bitartez ikasten dugu, taldeka eta modu praktikoan lan eginez. Horrela, ikasle guztion artean Baloreka enpresa martxan jarri dugu. Egia esan, proiektu errealetan lan egiteak asko motibatzeaz gain lan mundura hurbiltzen gaitu. Publizitatea eta marketina modu praktikoan ikasteko aukera paregabea da.

BALOREAK ENPRESA SORTU



Baloreka enpresaren helburu nagusia mahai-jokoaren bidez balioak sustatzea da, hau da, jolasaren bitartez modu entretenigarrian barneratzea. Umeak gizartearen etorkizuna dira eta balioetan heztega garrantzitsua dela uste dugu. Gure mahai-jokoaren bitartez gizarte hobea eraiki nahi genuke eta, posible bada, etekin ekonomikoa izan. Diseinatutako hiru mahai-jokoetan lantzen diren gaiak genero berdintasuna, birziklapena eta elikadura osasuntsua dira. Horretarako, ikaskideok hiru taldetan banatu gara eta talde bakoitzak balio bat landuko duen mahai-joko bana sortzeaz eta saltzeaz arduratuko da. Erronka profesionaltasunez garatzeko hiru zatitan banatuta dago: bildu, sortu eta saldu.

INFORMAZIOA BILDU ETA IDEIAK GARATU


Lehenik eta behin, *Design thinking* metodologia berritzailea erabiliz gure kontsumitzaileen beharrak aztertu ditugu, galdera hauei modu sortzailean erantzuna emateko: Nola jolastu dute umeek?; Zertara jolastea gustatzen zaie?; Zein ezaugarri dituzte gure mahai-jokoaren erabiltzaileek?; Nolakoak izan beharko litzateke mahai-joko entretenigarri bat? Ondoren, behar hauei konponbidea bilatu diegu.

Bildu atala merkataritza ikerketan eta ideia garatzean oinarritzen da. Lehiakideak izan zitezkeen enpresak eta mahai-jokoa diseinatzeko haurren adinaren egokitasunaren inguruko irizpideak aztertu ditugu. Gainera, mahai-jokoaren sektorean bete-betean murgiltzeko Bizkaiko Urtxintza Eskolako kide batekin egon gara. Beraien lanaren ardatza ere balioetan oinarrituta dago eta gai horiek nola lantzen dituzten eta mahai-jokoetan nola islatzen dituzten azaldu digute. Informazio hori guztia bildu ondoren, jokoa dinamika garatzen hasi gara hurrengo atalera pasatu aurretik. Dinamika asmatzea izan da atalaren entretenigarria.

Beste alde batetik, enpresaren eta mahai-jokoaren *naming-a* (izena) asmatzeko publizitate agentzietan erabiltzen diren *brainstorming* eta *brainwriting* teknikak erabili ditugu. Talde guztiaren artean *naming-a* adostu ondoren, Illustrator diseinu grafikoko programa erabiliz enpresaren logotipoa diseinatu dugu. Harrobian Adobe-aren hainbat programa erabiliz ikasten dugu, lan merkatuan programa horiek erabiltzen jakitea eskatzen baitute.

IDEIAK ERREALITATE BIHURTU

Sortu atalean, jokoaren itxura fisikoa, irudien eta jokoaren elementu guztien diseinua egin dugu. Horretarako bi fasetatik pasa gara: prototipoaren sorkuntza eta diseinu digitala. Lehenengo fasean, mahai-jokoaren dinamika ondo ulertzen dela ziurtatzeko diseinu guztia eskuz egin dugu eta, ondoren, horren oniritzia jaso dugunean, Illustratorekin behin betiko diseinua sortu dugu. Mahai-jokoaren estilo grafikoa zehazteko orduan, diseinatzaile ospetsuen erreferentziak bilatu ditugu eta mahai jokoaren erabiltzailearentzat egokiena iruditu zaiguna hautatu dugu. Kasu horretan erabiltzailea haurrak direla izan dugu kontuan.



Behin mahai-jokoa sortuta, eskoletara joan gara pilotajea egitera. Haur eta irakasleek, Baloreka enpresaren bezero potentzialak direnez, gure jokia probatzeko aukera izan dute eta, beraien iritzien arabera, mahai jokoei beharrezkoak diren hobekuntzak egin dizkiegu. Honela, beraiek ere jokoaren sorkuntzaren parte sentitzea lortzen dugu eta, etorkizunean, mahai-jokoaren erosleak izan daitezke.

MAHAI JOKOA MERKATURATU



Momentu honetan, merkaturatze fasean buru belarri gaude murgilduta. Jokoa saltzeko garaia heldu da eta geure lanaren fruituak jasotzea espero dugu. Jokoa saltzeko online eta offline euskarriak erabiliko ditugu. Baloreka enpresaren webgunea eta sare sozialak sortzen ari gara. Webgunea garatzeko, Wordpress CMS-a erabiltzen ari gara eta Google bilatzailean posizionamendu ona izateko SEO teknikak kontuan izango ditugu. Horrez gain, kartelak, liburuxkak eta promozio-bideoak ere diseinatzen ari gara, sare sozialetan partekatzeko, eta *influencer*-ekin kontaktuan jartzea pentsatuta daukagu.

Otsailean Ikasenpresa azokara joango gara, geure enpresa ezagutzera emateko eta hiru mahai-jokoak salgai jarriko ditugu. Hori dela eta, mahai jokoen prezioak finkatzen gaitza ekoizpen kostuak kontuan izanda eta salmentarako zenbait sustapen-teknika (deskontuak, opariak..) eskaintzea pentsatzen ari gara. Alde batetik, ahalik eta salmenta gehien lortzea gustatuko litzaiguke eta, beste alde batetik, gure mahai-jokoen bitartez gizarte hobea eraikitzea. Dena dela, oso pozik gaude enpresa sortzerako orduan, gaitasun teknikoaz gain taldeka lan egiten ere ikasi dugulako. Lan-giroa oso garrantzitsua da proiektuak aurrera ateratzeko!

Gerlari kemenak - Xsakara



Yoel Justel Morala

Stranger Things 2016an Netflix plataformak sortu-tako zientzia fikziozko telesaioa da eta lehenengo kapitulua 2016an estreinatu zen. Matt eta Ross Duffer anaiek idatzi zuten eta oso famatua da mundu osoan. Duffer anaiek hirugarren denboraldia egin dute orain arte eta hurrengo urtean aterako da laugarren denboraldia. *Stranger things* aurreko mendeko laurogei hamarkadako estetikan oinarritzen da. Istorioan 5 ume dira protagonista. Haietako bat desagertzen da etxerako bidean. Lagunak haren bila joango dira, baina Will-en ordez (desagertu den laguna) Eleven izeneko neska bat aurkitzen dute. Botere telepatikoak dituela konturatzen dira berehala.

Stranger Things telesaio oso ona dela iruditzen zaigu, eta gainera, kapitulu bat ikusitakoan, beste bat ikusteko irrikan zaude.

Abesti honek kontatzen digu zelan defendatzen duten gazteek etengabe beren burua besteengandik eta hauek nahi dutena egiten dutela une guztietan. Abestiaren letrak bi zati ditu. Hasteko, alde txarra dago; horregatik, esaten digu metrailetarekin kritikatzten duten pertsonen kontra daudela eta denetarik egiten dutela hauengandik ihes egiteko. Gainera, komentatzen digu hitz egiten soilik defenda daitezkeela sistema horretan. Haiek bide batetik joan nahi dute (abesten, kasu honetan), baina gizarteak ez die errazten hori, arrosotako arantza bezalako zailtasunak jarritz. Hala ere, zati on bat du, elkar defendatuz lortzen dute sistema honek ez ahultzea. Nire ikuspuntutik, abestia ondo dago, erritmo elektroniko atseginak ditu, eta letra gogoraerraza da. Bideoklipa apala da baina nahiko erakargarria tonu berdeak urdinekin nahasten baititu.

Stranger Things - The Duffer Brothers



Alaitz González eta Ilargi Ibisate

Aulki jokoa - Uxue Alberdi



Jelena Tijanic Muñoz

Badira oso trama bizia eta erakargarria duten istorioak, baina beste batzuek kontatzen dutena askoz ere interesgarriagoa da, nahiz eta intrigarik sortzen ez duten. Uxue Alberdik idatzitako *Aulki-jokoa* liburua mota honetakoa da. Denbora eta toki aldaketaz baliatuta, Teresa, Martiña eta Eulaliren bizitzen pasarteen berri ematen du, kontatzen duten istorio xume baina hunkigarriaren bitartez. Beste denbora batera eramaten gaitu eta umeen eta nagusien ikuspuntutik erakusten dizkigu haien bizipenak. Izenburuak erakusten duen moduan, aulki-jokoaren metafora erabiltzen du: pixkanaka-pixkanaka, gutako bakoitza hiltzen joango da, aulkia libre utzi eta joko-zelaitik aterakoda. Istorioan horri egiten zaio erreferentzia, hizkuntza modu samur eta dotorean erabilia.

Sukarrieta maitea

Rekaldeberri BHIko DBHko 1. eta 2. mailakook lau egun eta hiru gau zoragarri pasatu ditugu Sukarrietan. Hemen duzue gure egunerokoa

Urriaren 7an heldu ginen eta ongiatorria eman ziguten guri eta Santurtziko ikastetxe-koei. Parajea izugarria da! Bazkaldutakoan, futboleant aritu eta lan-proiektuan murgildu ginen: biodibertsitatean. Badakizu zenbat ekosistema dauden Urdaibain? Bost dira: itsasoa, itsasadarra, erreka, basoa eta padura. Arratsaldean kosmetika, sukaldaritza, koadernaketa, zumetza eta argazkigintza tailerrak genituen aukeran. Afaldu, aisialdia, dutxa hartu eta lotara! Ia ez genuen lorik egin, urduri geunden eta batzuk beldur ziren! Hurrengo egunean basora joan ginen ekosistemak aztertzerako. Irakasleek esan ziguten gizakiok garesti munduaren egoeraren errudunak, baina baita konponbidea ere. Egindakoa kartulina batean jaso genuen. Arratsaldean, plastikoari buruzko bideo batzuk ikusi genituen. Gero, kosmetikakoek xanpu bat egin zuten (nahiko txarto geratu zitzaizen), beste batzuek kolonia... Gauean bai egin genuen lo; bazen garaia!

9an errekarara joan ginen euripean: behe ibilguko ura grisa eta hoditerietakoa zen. Arratsaldean Mari Sukaren gutuna jaso genuen: hunkigarria! Gaueko Sukarromeria mundiala izan zen: jolas asko eta diskoteka amaieran. Gero, logelan, ordu bata arte egon ginen beldurrezko ipuin eta txisteak kontatzen. Ia lo egin barik azken eguna heldu zen.

Azkenengo egunean hondartzan hegazti bat aurkitu genuen plastikoak hilda. Zaborra batu genuen: oso tristea da hain txarto tratatzea hondartza. Gero, ikasitakoaren aurkezpena Santurtzikoan aurrean egitean, lotsa handia pasatu genuen. Mari Sukari agur esateko momentua heldu zen eta autobusera igo ginen Errekaldera bueltatzeko. Ama Lurra ezagutzen eta maitatzen ikasi dugu. Eskerrik asko Sukarrieta!

Ana Galindo, Uxue Spitsky, Adrian Perez eta Haizea Viadero
DBH 1. maila



MIKOLETA SARIAK

María Baldazo eta Claudia Zaragoza Ignacio Ellacuria-Zurbaran ikastetxeko Mikoleta lehiaketan saria irabazi duten ikasleak dira. Joan zen ikasturteko lehiaketa honetan parte hartu zuten lehen aldia izan zen, eta poz handiz jaso zuten berri ona, ez zutelako inolaz espero saria beraientzat izango zenik.

Urdaiazpiko espaziala
Claudia Zaragoza Suárez
 Batxilergoko 1 maila

Gabonak, festarik famatuenak, edonon ezagunak dira, baina uni-bertsoaren planeta askotan ere. 2018an lehen aldiz ospatu ziren Beñaten planetan, txerrien planetan, alegia. Beñat txerri txikia eta potoloa zen, arrosa kolorekoa, oso lagunkoia, jakin-mina eta apur bat baldarra. Beñat oso hunkituta zegoen, eta urte osoan zehar Gabonen inguruko informazioa bilatzen aritu zen, bere espazio-ontziarekin planetaz-planeta joateko asmotan. Lurra aurkitu arte.

Noiztik duzue idazteko edo irakurtzeko zale-tasuna?

CLAUDIA (C): Txikitatik gustatu zait marraztea eta istoriotxoak asmatzea. Eskolako atsedendietan komiki laburrak sortzen nituen. Denborekin ohitura hau galtzen joan naiz eta gaur egun ez dut askorik idazten. Irakurtzen dudanean, batez ere marrazkiak dituzten liburuak gustuko ditut.

MARIA (M): Egia da asko irakurtzen dudala, ikaragarri gustatzen zait mota askotako liburuak irakurtzea. Kontrara, inoiz ez dut izan idazteko zale-tasunik, baina euskara irakasleak Gabonetako etxerako lan moduan istorio bat egitea agindu zigun, eta nire istorioa irakurri eta gero, lehiaketara aurkezteko konbentzitu ninduen.

1, 2, 3, 4...
María Baldazo Bacigalupe
 DBH 4 maila

Urte bat baino gehiagoko zeraman bere familiari gezurra esaten egunero. Bere gurasoek uste zuten Kattalinek pilo bat lagun zituela eta primeran pasatzen zuela institutuan. Baina hori ez zen egia...

Kazetariak:
 Izarra González eta Peio Varó (DBH 4)

Zerk bultzatu zintuzten lehiaketa honetan parte hartzea?

C: Euskara irakasleak proposatu zidan lehiaketan parte hartzea.

M: Niri ere bai.

Zerk ekarri zizuen inspirazioa ipuina sortzeko?

C: Nire asmoa istorio barregarri eta originala idaztea zenez, titulu dibertigarrietan pentsatzen hasi nintzen eta Urdaiazpiko espaziala titulua bururatu zitzaidan. Gabonetako lan moduan bidali zigun irakasleak ipuina idaztea, eta, Gabonetan txerri ugari jaten dugunez, oso ideia ona eta absurdoa iruditu zitzaidan protagonista txerria izatea.

M: Etxean nengoen eta Euskara lana entregatze-

ko bi egun baino ez nituela gogoratu nuen. Hortaz, pentsatzen hasi nintzen ea zeri buruz idatz nezakeen eta bat-batean etorri zitzaidan istorioa burura.

Nolakoa izan zen idazteko prozesua?

C: Oporretako igande batean, arratsaldean, istorioan pentsatzen hasi nintzen eta egun berean hasi eta amaitu nuen. Ordenagailuaren aurrean jarri eta pixkanaka-pixkanaka sortu nuen, ipuina behin eta berriz irakurtzen akatsak zuzentzeko.

M: Idazteko prozesua ez zen batere luzea izan. Nik uste dut idazten trebea naizela eta, horri esker, bi ordu baino ez nituen eman ipuina lantzen.

Mikoletaren barruan dauden azpigenereen artean zein irabazi zenuten?

C: Narratiba eta poesia sariak daude Mikoletan, baina Mariak eta biok ipuin lehiaketan parte hartu genuen. Nik D kategoriako bigarren saria eskuratu nuen.

M: Nik D kategoriako argitaragarria.

Zer sentitu zenuten sarituak izango zintela jakin zenutenean? Eta etxekoek?

C: Poz handia sentitu nuen. Momentu har-

tan ez nuen ezta gogoratzen ere lehiaketara apuntatuta nengoenik, denbora asko pasatu zelako idatzi nuenetik. Ondorioz, sorpresa handiagoa izan zen. Gurasoak oso pozik zeuden ere, ez zekiten aurkeztu nintzenik eta txundituta geratu ziren. Sari banaketaren ekitaldian ez ginen amaierara arte geratu, baina oso esperientzia ona izan zen. Gainera, Bilboko Udalaren barruan nengoen lehen aldia izan zen.

M: Ilusio handiz jaso nuen berria. Ez nuen sinesten, jende pila aurkeztu zelako eta ez nuen espero nire ipuina irabazleen artean egongo zenik. Etxekoak ere oso pozik jarri ziren eta sari banaketan primeran pasatu genuen.

Inoiz beste literatura lehiaketa batean parte hartuko zenukete?

C: Hau izan da lehiaketa literario batean parte hartzen dudana lehenengo aldia. Normalean ez dut interes handirik izaten lehiaketak bilatzen, baina irakasle edo ezagun batek proposatuta, eta denbora izanda, animatuko nintzateke.

M: Orain ez, baina agian urte batzuk barru nire iritzia aldatu eta aurkeztuko naiz beste lehiaketa batera.



O	W	T	F	O	Y	G	G	K	K	D	Z
I	X	X	Q	N	P	E	N	G	I	B	A
L	K	A	T	U	A	R	T	Y	R	O	L
O	I	K	O	P	A	S	D	K	I	F	D
A	G	U	N	T	X	I	A	I	K	J	I
J	K	R	L	N	T	X	O	R	I	A	A
B	N	R	M	M	N	O	B	I	N	J	R
L	A	A	R	T	K	U	S	K	O	O	D
U	I	D	G	O	P	O	Y	I	A	V	I
Q	E	X	R	Z	J	A	B	N	S	D	A
K	R	O	K	O	D	R	I	L	O	A	U
P	Y	U	H	A	R	T	Z	A	F	C	D

HIZKI-ZOPA

Bilatu hurrengo animaliak ondoko hizki-zopan:

1. Katua
2. Txakurra
3. Untxia
4. Oiloa
5. Kirikiñoa
6. Krokodiloa
7. Zaldia
8. Hartza
9. Ardia
10. Txoria

IRUDI-IZKUTUA

Lotu zenbaki guztiak marra batez. Ze animalia ikusten duzu?

DESBERDINTASUNAK

Aurkitu 7 desberdintasunak

IRUDI-GRAMA

Ba al dakizkizu animalia hauen izenak?



BHI

Osatu ahal da bertso eder bat
horren ondo, horren erraz
zer egiten den ez badakizu
animatu zaitez beraz
ahaztu lotsa, dardarak eta
jende aurreko ikaraz
Unamunon be goza daiteke
bertsotan eta euskaraz!

**Bi urte para dira hemen
bertso eskola sortu zenetik
geroztik hona animau gara
bi bertsolari jadanik
anima zaitez, hasi bertsotan
eta ez eduki lotsarik
edonor hartzen baitugu
hemen besoak zabal-zabalik!**

School natura: lorategi bertikal eta barneratzailea

Nazio Batuen Erakundeak, NBE-k, aldaketa klimatikoa gelditzeko 2030 urtera arteko denbora dugula adierazi zuen. Gaur egun, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi da, eta zenbait urteren buruan kopuru hau handiagotu egingo omen da. Beraz, honek gure osasunari ondorio txarrak ekarriko dizkio. Horregatik, gure laguntza eskaintzea eta aldaketaren parte bihurtzea erabaki dugu.

Zer irudituko litzaizuke zure etxean edo zure ikasketxean lorategi bertikal bat izatea eta honi esker landareek ematen duten energia batzeko gai izatea? Gu School Natura gara eta La Salleko Batxilergoko 1. mailako 4 neskok osatzen dugu talde hau. Gure proiektua gure auzoan, Deustun, hasi genuen 2018ko irailean. DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleekin eta Lagun Artean eta Gizakia elkarteekin batera lan egin dugu gure helburua lortzeko, auzo osoa batzea garrantzitsua dela uste dugulako. Beraiek lorategiaren diseinuarekin, eraikuntzarekin eta zaintzarekin lagundu digute.

Landareak gure bizitzako funtsezko zati bat dira, eurek egunean zehar CO₂-a jaso eta O₂ bihurtzen baitute. Gainera, apaindu eta elikatu ere egiten dute. Hala ere, landareek beste gaitasun ezezagun bat ere badute: elektrizitatea. Gaur egun energia berriztagarrien bilaketa jasangarritasun arazo larria denez, honetan ikertzen ari izan gara. Hau, lorategiaren autoreztaketarako erabiliko genuke ekonomia zirkularra sortuz. Honela, ez litzateke urik xahutuko.

Lehiaketa desberdinetan finalistak edo irabazleak izan garenez, proiektu hau Espainiako zenbait zientzia azokatan azaltzeko aukera izan dugu, guretzat

oso aberatsak izan direnak, jende asko ezagutu dugu eta. Beraiek guri eskainitako jakituriari esker pixkanaka-pixkanaka hobetzen jarraitu dugu. Bestalde, sare sozialek beraiekin harremana mantentzen erraztu digute. Gure Instagram eta Twitter kontuen bidez jarraitzaileei proiektuan izandako aurrerapenak erakusten dizkiegu.



Lorategi bertikal honekin eta gure parte-hartzearekin ezin izango dugu planeta aldatu; horregatik, zuen laguntza behar dugu, guztiok batera gure auzoen ingurumena hobetu dezagun. Gogoratu, oraindik gure planeta salbatzeko aukera dugula, aprobetxa dezagun!

Eta zuek ere ematen ditugun pausoen berri izan nahi baduzue... jarraitu helbide honetan: @schoolnatura.



*Irati Alcubilla, Lucía Gómez, Leire Rojas eta Ane Yagüe
Batxilergoko 1. maila - La Salle Bilbao*

Teknologia tailerra



Urriaren 3an eta 4an Fundación Repsoleko ordezkariak etorri ziren ikastetxera energia tailer batzuk azaltzera eta lantzera. Tailer hauen izena “Talleres de Aprendizaje de Energía” zen eta 3.DBHko hiru taldeetan landu genituen teknologia irakasgaia. Repsoletik bi monitore etorri ziren gela bakoitzera tailerra bideratzera.

Tailer hauetan hiru joko planteatu zituzten energiari lotutako kontzeptuak ikasteko eta ulertzeko asmoz. Monitoreek taldeetan banatu gintuzten, 6 ikasleko 4 talde egin zituzten gela bakoitzean.

Lehenengo jokoak orain arte genekiena neurtzeko eta gu kokatzeko egin zuten. Talde bakoitzeko partaide batek energia karta bat hartu eta arbelean marraztu behar izan zuten. Taldekideek erantzuna asmatu behar zuten bi puntu lortzeko, baina, beste talde batek asmatzen bazuen, puntu bat irabazten zuten. Arbelean taula bat osatu genuen energia iturri, zentral mota eta bakoitzaren potentzia idatzi genuelarik.

Bigarren jokoak CO2aren lasterketa zuen izena. Joko honetan ibilgailu desberdinen CO2 kutsadura aztertu genuen. Kartoizko errepede baten gainean ordenatu behar izan genituen ibilgailuak CO2 kutsaduraren arabera, gutxien kutsatzen zuenetik gehien kutsatzen zuenera. Ibilgailu batzuk erraz ordenatu genituen (bizikleta, kotxe elektrikoa, kotxe hibridoa, gasolina kotxea, diesel kotxea, autobusa eta hegazkina) baina beste batzuk, adibidez GLP kotxea edo autobus hibridoa, kokatzeko arazoak izan genituen. Ibilgailu gehien ondo ordenatu zituen taldeak irabazi zituen puntuak.

Hirugarren jokoak interesgarriena izan zen. Mix energetikoaren erronka deitzen zen eta taldeka herrialde baten energia hornidura kudeatu genuen. Alde batetik, herrialde baten fitxa banatu ziguten eta fitxa honetan herrialdeak behar zuten energia MWhtan neurtuta adierazita zegoen. Herrialdearen ezaugarrien artean, herrialdearen baliabide nagusiak agertzen ziren eta mo-

nitoreek herrialde baten energia kostua murrizteko baliabide nagusiak erabiltzea hoberena zela azaldu zuten.

Bestetik, herrialdearen ohol bat banatu ziguten eta ohol horretan zentral desberdinen irudiak kokatu behar izan genituen. Oholean mendia, ibaia eta basoa bezalako marrazkiak zeuden eta energia iturriaren arabera kokatu behar genituen zentralak.

Behar genuen energia lortzeko kalkuluak egin behar izan genituen eta jokoaren irabazlea energia kantitate zehatza lortu zuena izan zen. Energia gehiegi ekoiztea kaltegarria zen, ezin genuelako metatu eta, energia gutxiegi ekoizten bazen, herrialde guztiak ez zuten energiari izango.

Gainera, taldeko partaide bakoitzak rol bat zuen (kazetaria, nekazaria, ekonomia ministroa, ingeniari kimikoa eta biztanlea) eta akordioetara heltzeko eztabaida sortu genuen gure rolairen interesen arabera.

3DBHko ikasleak



INES: Arratsalde on, Eztanda taldea.

GUZTIOK: Aupa!

INES: Zuen taldeari buruzko galdera batzuk egingo dizkizuet. Ados?

GUZTIOK: Bai, noski!

INES: Hasteko, azaldu iezadazue nortzuk zareten.

GARI: Eztanda taldea gara eta taldea Xabik, Jonzak, Imak, Unaik, Andonik eta seiok osatzen dugu, guztira sei gara.

ANDONI: Hasieran, bost ginen baina geroago baxua jotzeko Gari sartu zen.

UNAI: Bai, horixe da. Txikitatik egon gara elkarrekin ikastolan. Imanol izan ezik, futboleak jolasten zena, Jonza, Andoni, Xabi eta laurok elkarrekin jolasten ginen eta horregatik ezagutzen dugu elkar. Denok Deustutik gatoz.

INES: Nolatan hasi zineten musikarekin? Zenbat urterekin?

JON: Egia esanda, egun batean musika talde bat sortzeko ideia bururatu zitzaidan, baina, beste ideiak bezala, arin ahaztu nuen. Denbora pasatu zen eta horretan berriz pentsatzen hasi nintzen. Orain dela bi urte, 2017an, hamabost urte genituela, Unai eta Andoniri komentatu nien ideia eta gogotsu hartu zuten. Handik aurrera lagunekin hitz

egiten eta motibazio handiarekin, sortu genuen Eztanda.

INES: Zer musika tresna jotzen dituzue?

XABI: Kontzertuetan hainbat instrumentu desberdinekin gabiltza; Alvarez bateriarekin, Jonza abesten, tronpeta eta tronparekin, Ima tronboiarekin eta teklatuarekin, Andoni gitarrekin, Gari baxuarekin, eta ni abesten.

INES: Zer musika mota egiten duzue? Abestiak zuenak dira?

XABI: Bueno, gure estiloa oraindik ez dago oso zehaztuta, kar-kar-kar, baina reggae-rantz jotzen dugu gehien bat.

IMANOL: Abestiak ez dira gureak, beste talde batzuen abestietatik egindako bertsioak jotzea gustuko dugu, gureak bizpahiru baino ez dira, Boom eta Bizia, adibidez.

INES: Gehien bat euskaraz abesten duzue. Zein da euskararen lekua musikan, badu garrantzirik?

GARI: Bueno, gero eta gehiago ikusten dira euskaraz abesten duten taldeak, batez ere gure adinekoak, baina, egia esan, ez dauka arrakasta handirik. Gure helburuen artean euskara bultzatzea dago, guretzako garrantzi handia du eta beti saiatzen gara beste taldeekin euskaraz egiten.



INES: Zer transmititzen dizue agertokian egoteak?

JON: Hor goian egoteak izugarritzko zirrara eta poztasuna ematen dizu, egindako lan guztiak zerbaitetarako balio duela ikusteko adibide deigarriena da. Azkenean, ordu asko eman behar ditugu eta batzuetan zaila da, baina kontzertuek segitzeko gogoia ematen dizute.

UNAI: Gehienetan, adrenalina asko igotzen dizu goian egoteak baina, batez ere, lagunuen artean musika egiteak eta beste pertsonen gustua emateak eta horrek ematen digun poztasuna erakusteko oroitzapen ahaztezinak dakartza.

INES: Zein izan da zuen esperientziarik txarrena?

IMANOL: Esperientziarik txarrena kontzertu batean izan zen. Kontzertuaren erdialdera dena bertan behera utzi behar izan genuen ezin geniolako elkarri entzun. Hark deskoordinazio itzela zekarren eta azkenean ezin genuela jarraitu erabaki genuen. Egia esan, zapora txarrarekin joan ginen etxera, triste xamar geratu ginen.

INES: Eta hoberena?

ANDONI: Bilboko Aste Nagusiko kontzertua. Jende asko egon zen, guztiak oso motiba-

tuak zeuden, batez ere, gure lagunak eta familiak. Horrek positibotasun asko ematen digu gure ehuneko ehuna emateko.

GARI: Itzela izan zen, benetan, ez dauka gu hitzik horrelako sentimendua azaltzeko. Eskerrak baino ezin dizkiegu eman hurbildu ziren guztiei.

INES: Zertan zabiltzate orain?

GARI: Denboraldi batez pausa egitea erabaki dugu maketa bat ateratzeko asmoarekin. Pixkanaka-pixkanaka proiektua aurrera doa baina oraindik bide luzea eta lan handia falta da.


XABI: Gainera, orain arte taldekide guztiak mutilak izan gara; orain teklista bat batuko zaigu: Teresa du izena eta Mungiakoa da. Gogoz gaude batera lan egiteko eta emaitza onak ateratzeko asmoz.

INES: Zer espero duzue etorkizunera begira?

JON: Ba, ez dakigu oso ondo etorkizunean zer gertatuko den. Momentuz, poz-pozik eta eskertuta gaude aukera hau izateagatik eta gehien gustatzen zaiguna elkarrekin egiteagatik. Datorren urtean unibertsitatera joango gara batzuk eta ez dakigu zer egingo dugun, baina momentuz gure helburu nagusia diskoa ateratzea da, eta gero gerokoa...




Gure neska-mutilak




Chibuzor dut izena eta Bilbon bizi naiz. Nigeriatik etorri naiz baina Bilbo Nigeria baino gehiago gustatzen zait. Bilboko janaria, autobusak eta ordenagailuak gustatzen zaizkit. Orain dela bi urte etorri nintzen. Nigerian ingelesez hitz egiten nuen.

Leyman naiz, hamabi urte ditut eta Nikaraguatik etorri nintzen orain dela hiru urte. Nikaragua Bilbo baino txikiagoa da. Bilbo oso hiri polita da, baina eskolako lagunak faltan botatzen ditut. Nikaragua oso lasaia da, animaliak eta txorien kantak ere faltan botatzen ditut.



Chigozie naiz eta Nigeriatik etorri nintzen orain dela bi urte. Bilbon bizitzea gustatzen zait, hemengo parkeak, lagunak eta gaztelania. Nigeriako beroa faltan botatzen dut.

Anas dut izena, hamar urte ditut eta orain dela lau hilabete etorri nintzen Bilbora Fuerteventuratik. Bilboko janaria eta jendea gustatzen zaizkit baina lagunak eta beroa faltan botatzen ditut.



Hong-Xin dut izena. Anaia nagusia, bi urte zituela, Txinatik Bilbora etorri zen gurasoekin. Gero, arreba eta biok Bilbon jaio eta Peñaskalen bizi gara. Larunbatero txinatar elkarte batera joaten gara gure jatorrizko hizkuntza, kultura, erlijioa eta abar ikasteko. Bilbon oso zoriontsua naiz eta lagun asko ditut.

Euskal Herriko hiru bihotz handi eta bihurrienekin ditut nire txikitako oroitzapenik goxoenak kantuan, algaraka eta dantzan. Urtero ikuskizun berriaz gozatzeko irrikan egoten ginen. Nola geratuko dira nafar haurrak Porrotxen katxiporretarik gabe, Pirritxen irrintzi barik eta Marimototsen muxu potoloak jaso ezinik... Baloreetan hezteko, umorea eta irria duintasunez eta maitasunez erabiliz edozein gairen inguruan, ez dut hoberik ezagutu. Ilargiraino eta buelta maite zaituztegu!

Antxon Agirre – Ibarrekolanda BHI

Berbalagunak

Aurrekoan, amak azaldu zidan ostiralero egiten duen plana. Antza denez, euskara ikasi edota mintzatu nahi duten kideekin biltzen da auzoko tabernetan, zeozer hartzen duten bitartean euskaraz mintzatzeko helburuarekin. Hizkuntza kalera ateratzea helburu nagusia dugu, ez da bakarrik ezagutzea, euskara bizirik dagoela erakutsi behar dugu, ingurukoekin praktikan jarri eta egunerokoan normaltasunez erabiliz. Horregatik Berbalagun taldea gomendatzen dut, apartako aukera baita.

Nerea Lizarralde - Ibarrekolanda BHI

Urtero, gau beltza ospatzeko asmotan, hainbat gauza desberdin egiten ditut. Aurten, nire herrira joan naiz. Taldeko guztiok mozorrotu egin gara eta herriko etxe guztietatik pasatu gara “saria edo ziria” egiten. Gaur egun, normalean lagunekin plan ezberdinak egiten ditugu egun hau ospatzeko, eta, gure auzoan, askotan dendetatik joaten gara gozokiak eskatzen. Horretaz gain, Gau Beltzarekin erlazionatutako apaingarriak leku askotan ikusi ditut: tabernetan, dendetan eta etxe guztietako ateetan.

**Judith Abasolo (DBH 4 maila) -
Ellacuria-Zurbaran BHI**

Aurtengo Gau Beltza lagunekin ospatu dut. Aurpegiko mozorroak erosi ditugu *La Purga* pelikularen pertsonaiez mozorrotzeko eta, antzina egiten zuten bezala, kaleetatik joan gara umeak beldurtzen. Gainera, nahiz eta 15 urte izan, hainbat lekutara joan gara gozokiak eskatzen! Dendak eta jatetxeak armiarmez eta armiarma-sarek beteta zeuden, eta hau nire etxean ere betidanik egin da. Nire lagunak etxera etorri zirenean mozorroak prestatzeko, igogailutik ateratzean, dena ilun-iluna eta atean armiarma bat ikusi zuten. Zelako sustoa hartu zuten!

**Naia Rodriguez (DBH 4 maila) -
Ellacuria-Zurbaran BHI**

Gora Euskal Irria!

Gau beltza



Galdera-erantzunen euskarazko jokoa


Egunean Behin partida,
Astean Behin **SARIA!**

Oso dinamika errazeko jokoa da **Egunean Behin**. Izenak berak dioten bezala, egunean behin partida bat jokatu behar duzu. Partida bat eta bakarra. **10 galdera erantzun beharko dituzu, ahalik eta azkarren.** Zenbat eta gehiago asmatu, zenbat eta azkarrago asmatu, hobeto!

Gainera, **astero sari bat** ematen dute. **Taldeak egiteko aukera ere badago**, sailkapen orokorrean ez ezik, partidak zure lagunekin, familiakoekin, ikastetxeko lagunekin... partekatzeke eta sailkapen bereziak egiteko.

Abenduaren 14an jokoaren finala ospatuko da Azpeitian. 150 jokalarik aldi berean erantzungo dituzte galdera berdinak. Hala ere, denboraldia abenduaren 29an amaituko da eta urtarilaren 27an hasiko da hirugarrena.

Dagoeneko 37.000 erabiltzaile baino gehiago ditu, beraz, deskargatu mugikorrean eta **jokatu zure lagunekin egunean behin!**



*2019ko Euskararen Eguneko
Deustualdeko Euskararen Unibertsoko
pegatina lehiaketaren irabazlea:*

Lorea Olabarria Bañales,
La Salle Bilbao HLBIP

